

“Kerja” - Merkatuaren segmentazioa

Bitartekariak garez, gure merkatua aldeaniztuna da. Izan ere, gazteei lana eskaintzen diegu, baita saltoki eta partikularrei langileak aurkitzeko baliabideak ere.

Gure enpresan interesa izango duten gazteek (batxilergoko ikasleak gehien bat) anbizio handikoak izango dira. Hainbat helburu izango dituzte, hala nola: unibertsitaterako dirua lortzea, lan esperientzia eskuratzea, familia ekonomikoki laguntzea, egindako lanarekin harro sentitzea...

Parte hartuko duen beste bezero mota bat egongo da, lana eskaintzen duena, hain zuzen ere. Hauek behar desberdinak izango dituzte, esaterako: haien saltokia aurrera eramateko laguntza, ikasgaiaren bat gainditzeko errefortzua, zaindari bat...